



HASIERATIK SEGURU

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

haurrak

HASIERATIK
SEGURU

>>> AURKEZPENA

Helduek bezala, haurrek segurtasuneko babesgailu batekin bidaiatzeko eskubidea dute, istripuren bat gertatuz gero lesiorik izan ez dezaten. Ibilgailuetako segurtasun-sistema gehienak (segurtasun-uhalak, airbagak, buru-euskarriak ...) ez daude adin horietarako pentsatuta eta diseinatuta; beraz, haur bakoitzak haurrak lotzeko sistema (HLS) bat izan eta behar bezala erabili behar du joan-etorrietan. Horrela, istripua izanez gero, heriotza eragiten duten lesioak % 40 gutxitzen dira, eta zauri larriak izateko arriskua % 70.

Askotan, haurrak lotzeko sistema bat erostera doazenek honelako zalantzak izaten dituzte: *Non jar dezaket edo jarri behar dut adingabea? HLS guztiak berdinak dira? Zer da ISOFIX? Eta I-Size aulkiak, zer dira? Segurtasun-homologazioak... autoetarako, HLSetarako edo bietarako al dira?*

Dokumentu honen helburua adingabearentzako HLS egokiena aukeratzen laguntzea da, adingabearen joan-etorrietarako erabiliko duzun ibilgailuaren ezaugarriak kontuan hartuz. Hala ere, haurrak lotzeko sistema bat eraginkorra izan dadin, haur bakoitzaren altuerarako edo pisurako egokia izan behar da, sistemak ibilgailuan behar bezala kokatuta egon behar du, eta adingabea posizio egokian jarri behar da. Dokumentu honetan, neurri horiek betetzeko orientabide erabilgarri batzuk aurkituko dituzu.

Gogoratu: lehen urteetan ikasten duguna familia-ereduak imitatuz egiten dugu. Beraz, segurtasun-uhala erabiltzen baduzu, zure seme edo alabari bere babesgailu propioa erabiltzeko exijitu ahal izango diozu. Zure ohiturak haien ohitura bihurtuko dira.

>>> AURKIBIDEA

	HAURREN BIDE-SEGURTASUNAREN DEKALOGOA	6
	ADINGABEEN GARRAIOARI BURUZKO ARAUDIA	
	135 cm edo gutxiago neurtzen duten adingabeak	8
	135 cm baino gehiago neurtzen duten adingabeak	9
	AULKI MOTAK	
	Aulkiak pisuaren arabera	10
	0-13 kg (0 eta 0+ taldeak)	11
	9-18 kg (1 taldea)	12
	15-36 kg (2 eta 3 taldeak)	13
	Aulkiak, altueraren arabera	14
	AINGURAKETA-SISTEMAK	
	Isofix	15
	Top Tether	17
	Eusteko hanka	18
	Lower Tether	19
	HOMOLOGAZIOAK	
	homologazio-etiketak	20
	ECE R44/04	21
	ECE R129 (I-Size)	22
	OHIKO GALDERAK	
	Ibilgailu partikularrak	23
	Taxiak eta gidaridun-ibilgailuak	26
	Eskola-garraioa	27
	Haurdunaldia eta segurtasun-uhala	28

HAURREN BIDE-SEGURTASUNAREN DEKALOGOA

1



BETI

Adingabeak ibilgailu batean eramaten dituzunean, bakoitza bere tamainari eta pisuari **dagokion haurrak lotzeko sistema batean** eraman behar da beti, ibilbidea laburra izan arren. Eta inoiz ez utzi, inolaz ere, heldu batek gainbegiratabe.

2



HOMOLOGATUA

Erabili beti **aulki homologatuak**, eta, ahal bada, aukeratu araudi berriena betetzen duena, segurtasun-eskakizunak handiagoak izango baitira. Egiaztatu homologazio-etiketa; etiketa horretan, produktua zer tamaina eta/edo pisurako homologatu den adierazi behar da.

3



ESPEZIALIZATUA

Haurrak lotzeko sistema bat erosteko, zoaz **zentro espezializatu** batera. Bertan, adingabe bakoitzaren beharrei buruzko aholkuak emango dizkizute, eta aulki bakoitzaren ezaugarriak eta aulkia nola instalatu azalduko dizute. Irakurri arretaz aulkiaren jarraibideak, eta ziurtatu aulkia zuzen-zuzen instalatuta dagoela; gorde jarraibideak hurrengo kontsultatzeko.

4



BERRIA

Ez erosi bigarren eskuko aulkirik, eta ez onartu dagoeneko denbora luzez erabili izan direnak. Eta istripu baten ondoren, aulkia ordeztu egin behar da.

5




BATERAGARRIA

Ibilgailua eta haurraren aulkia bateragarriak izan behar dira. Aulki bat erosi aurretik, egiaztatu zure ibilgailuaren ainguratzeko-sistema (i.Size, ISOFix eta/edo segurtasun-uhala) eta bilatu zure ibilgailura egokitzen den aulki bat.

HAURREN BIDE-SEGURTASUNAREN DEKALOGOA

6



ATZEKO ESERLEKUAK

Jarri beti **adingabea ibilgailuaren atzeko eserlekuetan** (ahal dela, erdikoan), eta, gogoratu: hori egiteko, jar zaitez beti bidearen alde seguruan (esaterako, espaloian). Aulkia soilik aurreko eserlekuan jar badezakezu, eta aulkia martxaren kontrako noranzkoan instalatzen bada, deskonektatu aurreko airbaga.

7



KONTRAKO NORANZKOA

Adingabe bakoitza **martxaren kontrako noranzkoan ahalik eta denbora gehienez eramatea gomendatzen da**, haurrak lotzeko sistemen eta ibilgailuaren enpresa fabrikatzaileek ezarritako mugak errespetatuz. Doitu beti ondo arnesak edo uhalak bere gorputzera, lasaierarik gabe.

8



BIZKARRAL- DEAREKIN

Haur nagusiagoen kasuan, **gutxienez 135 cm-ko altuera duten eserleku-bizkardunak erabiltzea gomendatzen da**, alboetako talken aurrean babes handiagoa ematen dutelako eta segurtasun-uharen eraginkortasuna hobetzen dutelako.

9



OBJEKTU SOLTEAK

Ez bidaiatu inoiz objektu solteekin, eta ez jarri inoiz ere ekipajerik edo maskotarik ibilgailuan adingabeen ondoan. Balaztada edo talka eginez gero, airean irten daitezke eta lesio larriak izan ditzakete.

10



ISTRIPUA

Istripua izanez gero, eta ahal den guztietan, **adingabea haurrak lotzeko sistema barruan bertan atera behar da istripua izan duen ibilgailutik**, eta inoiz ere ez besotetan (salbu eta berehalako arriskuak badaude).



HAURRAK LOTZEKO SISTEMA HOMOLOGATUAK



9 ESERLEKU ARTEKO IBILGAILUAK

DEBEKATUTA AURREKO ESERLEKUETAN

SALBUESPENAK:

- Ibilgailuak atzeko eserlekurik ez badu.
- Atezko eserleku guztiak dagoeneko okupatuta badaude haurrak lotzeko sistema homologatuak daramatzaten adingabeekin.
- Haurrak lotzeko sistema guztiak atzeko eserlekuetan instalatzea ezinezkoa bada.

9 ESERLEKU BAINO GEHIAGOKO IBILGAILUAK

3 URTEKO EDO GEHIAGOKO BIDAIAIRIAK

Haien neurri eta pisura egokitutako haurrak lotzeko sistemarik ez badugu, segurtasun-uhalak erabili behar dira, baina haien neurri eta pisura egokituta.

ARAU-HAUSTEAK

Homologatutako segurtasun-uhalak eta haurrak lotzeko beste sistema batzuk ez instalatzea edo ez erabiltzea arau-hauste **larritzat** edo **oso larritzat** joko da.

INSTALAZIOA:

Haurrak lotzeko sistemak ibilgailuan instalatzeko, fabrikatzaileak eskuliburu, liburuxka edo argitalpen elektroniko baten bidez emandako jarraibideak bete beharko dira beti. Jarraibideetan adieraziko da sistema horiek nola eta zer ibilgailu-motatan erabil daitezkeen segurtasunez.

ADINGABEEN ALTUERA

135 CM-TIK GORA

Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren 117. artikulua.

SEGURTASUN-UHALAK



ARAU-HAUSTEAK

Homologatutako segurtasun-uhalak eta haurrak lotzeko beste sistema batzuk ez instalatzea edo ez erabiltzea arau-hauste **larritzat edo oso larritzat joko da.**

GOMENDIOAK:

Hiru ainguraketa-puntuko segurtasun-uhalek adingabeak babestu ahal izateko, ibilgailuko eserlekuaren bizkaraldearen gainean zuzen eseri eta belaunak eserlekuaren ertzeraino tolestu ahal izateko adinako altuera izan behar dute, irristatu gabe.

Aulkia mantentzea komeni da, adingabeak 150 cm-ko altuera izaten duen arte, hori baita automobilaren segurtasun-uhalak bere zeregina behar bezala betetzeko behar den gutxieneko altuera.

AULKI MOTAK

AULKIAK PISUAREN ARABERA

ECE R44/04 homologazioa

0 eta 0+ TALDEA

0-13 kg



**Martxaren kontrako
noranzkoa**

1. TALDEA


9-18 kg



**Martxaren noranzkoa
edo martxaren kontrako
noranzkoa**

2 eta 3 TALDEAK

15-36 kg



**Martxaren
noranzkoa**

Une honetan merkatuan haurrak lotzeko bi sistema aurki daitezke: alde batetik, martxaren noranzkoan instalatu behar direnak, eta bestetik, martxaren kontrako noranzkoan instalatu behar direnak. Hortaz, horiek guztiak zuzen eta segurtasunez instalatzen direla bermatzeko, fabrikatzaile bakoitzaren jarraibideak bete behar dira.

AULKI MOTAK

0 eta 0+ TALDEA (0-13 kg)

ECE R44/04 homologazioa



KOKAPENA: MARTXAREN KONTRAKO NORANZKOA

SEGURTASUNA	IBILGAILUA	UMETXOA
Martxaren kontrako noranzkoan jarritako aulkiek hobeto babesten dituzte umetxoaren burua, lepoa eta bizkarrezurra martxaren noranzkoan jarritakoei baino. Haurrak talde honentzat gomendatutako gehieneko pisua gainditzen duenean, edo haurraren buruak aulkiaren bizkarraldea gainditzen duenean, aulkia aldatu beharko da.	Aulki hauek atzeko eserlekuetan jarri behar dira (salbuespenak salbuespen). ISOFIX sistemaren bidez lotzen dira, ibilgailuak halakorik badu, edo ibilgailuaren hiru ainguraketa-puntuak segurtasun-uhalarekin.	Umetxoa bost puntuko arnes baten bidez lotzen zaio aulkiari (sorbaldean, aldakan eta hanken artean). Arnasaren goiko zintak sorbaldean parean jarri behar dira.

AHOLKUAK:

ISOFIX baduzu, egiaztatu ainguraketak ondo lotuta daudela eta **Top Tether** edo **Eusteko hanka** ere ondo instalatuta dagoela.

ISOFIX ez baduzu, ziurtatu aulkia ondo lotzen zaiola ibilgailuari, uhala ondo tenkatuz. Eragiketa hori aldizka egitea gomendatzen da, automobilaren uhalak lasaitzeko joera izaten duelako, denboraren eta bibrazioen ondorioz.

Instalazio zuzena eta segurua bermatzeko, bete fabrikatzailearen jarraibideak.

1. TALDEKO AULKIAK (9-18 kg)

ECE R44/04 homologazioa



KOKAPENA: MARTXAREN NORANZKOA EDO MARTXAREN KONTRAKO NORANZKOA

SEGURTASUNA	IBILGAILUA	UMETXOA
Talka eginez gero, aulkiaren arnesak aurreranzko mugimendua xurgatzen du, eta ainguraketa-sistemek (ISOFIX, Top Tether edo Eusteko hanka) edo segurtasun-uhalak aulkia bere lekuan mantentzen dute. Haurrak talde honentzat gomendatutako gehieneko pisua gainditzen duenean, edo haurraren buruak aulkiaren bizkaraldea gainditzen duenean, aulkia aldatu beharko da.	Aulki hauek atzeko eserlekuetan jarri behar dira (salbuespenak salbuespen). ISOFIX sistemaren bidez lotzen dira, ibilgailuak halakorik badu, edo ibilgailuaren hiru ainguraketa-puntuko segurtasun-uhalarekin.	Umetxoa bost puntuko arnes baten bidez lotzen zaio aulkiari (sorbaldean, aldakan eta hanken artean). Arnasaren goiko zintak sorbaldean parean jarri behar dira.

AHOLKUAK:

ISOFIX baduzu, egiaztatu ainguraketak ondo lotuta daudela eta **Top Tether** edo **Eusteko hanka** ere ondo instalatuta dagoela.


ISOFIX ez baduzu, ziurtatu aulkia ondo lotzen zaiola ibilgailuari, uhala ondo tenkatuz. Eragiketa hori aldizka egitea gomendatzen da, automobilaren uhalak lasaitzeko joera izaten duelako, denboraren eta bibrazioen ondorioz.

Instalazio zuzena eta segurua bermatzeko, bete fabrikatzailearen jarraibideak.

2. eta 3. TALDEKO AULKIAK (15-36 kg)

ECE R44/04 homologazioa

KOKAPENA: MARTXAREN NORANZKOA



SEGURTASUNA

Aulki hauek haurra altxatzeko aukera ematen dute, eta horrela, ibilgailuaren segurtasun-uhala behar bezala erabiltzeko beharrezko altuerara iristen dira. Haurren segurtasunaren aldera, erabili bizkaraldea dutenak, babes handiagoa eskaintzen baitute eta erosoagoak baitira.

IBILGAILUA

Aulki hauek atzeko eserlekuetan jarri behar dira (**salbuespenak salbuespen**). Ibilgailuaren hiru ainguraketa-puntuko segurtasun-uhalarekin lotzen dira, edo **ISOFIX** sistemaren bidez, ibilgailuak halakorik badu. Ibilgailuaren segurtasun-uhalak berak lotzen du adingabea aulkira.

HAURRA

Uhalaren banda diagonal klabikularen gainetik igaro behar da eta sorbaldaren gainean jarri, lepoa ukitu gabe. Sabeleko banda ahalik eta behean jarri behar da, aldaken gainetik eta izterren gainean jarrita, inoiz ez urdailaren gainean.

AHOLKUAK:

ISOFIX baduzu, egiaztatu ainguraketak ondo lotuta daudela eta **Top Tether** edo **Eusteko hanka** ere ondo instalatuta dagoela.

ISOFIX ez baduzu, ziurtatu aulkia ondo lotzen zaiola ibilgailuari, uhala ondo tenkatuz. Eragiketa hori aldizka egitea gomendatzen da, automobilaren uhalak lasaitzeko joera izaten duelako, denboraren eta bibrazioen ondorioz.

Instalazio zuzena eta segurua bermatzeko, bete fabrikatzailearen jarraibideak.

AULKI MOTAK

AULKIAK, ALTUERAREN ARABERA (I-SIZE)

ECE R129 homologazioa



SEGURTASUNA

Aulki hauen bidez, 71 cm baino gutxiagoko haurrek (15-18 hilabete inguru) martxaren kontrako noranzkoan bidaiatu beharko dute nahitaez. Horrela, lepoko eta buruko lesio-kopurua murriztu nahi da. Aulkitxo batzuk martxaren kontrako noranzkoan erabiltzen jarrai daitezke haurrak 105 cm-ko altuera hartzen duen arte (4 urte inguru).

IBILGAILUA

Aulki hauek atzeko eserleketan jarri behar dira ([salbuespenak salbuespen](#)). Ibilgailuaren [ISOFIX](#) aingurekin eta [Eusteko hanka](#) edo [Top Tether](#)-ekin lotzen dira.

HAURRA

Umetxoa bost puntuko arnes baten bidez lotzen zaio aulkiari (sorbaldean, aldakan eta hanken artean). Arnesaren zintak haurraren gorputzera ondo doitu eta sorbaldean parean jarrita egon beharko dira.

AHOLKUAK:

Egiaztatu ainguraketak ondo lotuta daudela eta [Top Tether](#) edo [Eusteko hanka](#) ere ondo instalatuta dagoela. Instalazio zuzena eta segurua bermatzeko, bete fabrikatzailearen jarraibideak.



ISOFIX haurrentzako aulkitxoak instalatzeko sistema erraz eta azkarra da, eta ikusteko eta entzuteko lagungarriak ditu aurreko aldean. Ez du automobilaren berezko uhalik behar zuzen erabiltzeko, eta lotura sendo eta mugiezina ezartzen du aulkitxoaren eta ibilgailuaren barruko txasisaren artean.

Aulkitxoa eusteko bi ainguraketa daude, ibilgailuaren atzeko eserlekuaren eta bizkaraldearen artean.

Gaur egun, automobil gehienek sistema hori dute instalatuta, eta 2006tik aurrerako eredu berrietan nahitaezkoa da.

Abantaila handi bat du; izan ere, erraz muntatzen da, eta horri esker, akatsak saihesten dira eta aulkia instalatzeko eta desinstalatzeko lana errazten da.

Segurtasun-uhalarekin lotzeko sistema tradizionala erabili eta talka eginez gero, **ISOFIX** sistemarekin aurrerantz mugituko litzatekeena baino gehiago mugitzen da aulkia.





NOLA JAKIN ZURE IBILGAILUAK ISOFIX OTE DUEN?

Zure automobilak **ISOFIX** ainguraketa-sistema duen egiaztatu nahi baduzu, hiru modutan egin dezakezu:

- 1.- Kontsultatu ibilgailuaren erabilera-eskuliburua edo dagokion fabrikatzailearen webgunea.
- 2.- Behatu ibilgailuaren eserlekuak **ISOFIX** hitzarekin identifikatuta dauden edo honelako logotipo bat duten:



ISOFIX

- 3.- Sartu eskua ibilgailuaren atzeko eserlekuen eta bizkaraldearen artean. Horietako tarte bakoitzean altzairuzko bi eraztun aurkitzen badituzu, hori da **ISOFIX** ainguraketa.

Zure ibilgailuak instalazio-sistema hori badu, jakizu **ISOFIX** duten aulkitxo guzti-guztiek bi luzapen zurrun dituztela ibilgailuaren eserlekuko altzairuzko bi eraztunekin lotzeko, eta horrez gain, beste ainguraketa-puntu bat ere badutela, aulkitxoa aurrerantz erortzea saihesteko. Ainguratze-puntu hori bi babesgailu hauetako bati lotzen zaio:

TOP TETHER



EUSTEKO HANKA



Ainguratze guztiak automobilaren txasisari lotuta daude. Horiei esker, aulkia mugitzeko edo iraultzeko arriskua gutxitzen da istripua izanez gero.

ANGURAKETA-SISTEMAK

TOP TETHER




Babesgailu honek ainguraketa unibertsala du, hau da, **ISOFIX** duen edozein aulkitxo bateragarria da Top Tether ainguraketa-puntu bat duten ibilgailu guztiekin.

Uhal baten bidez, eserlekuaren bizkaraldearen goiko aldea maletategiaren oinarriara edo eserlekuaren atzeko aldera lotzen du, edo, modeloaren arabera, automobilaren beste lekuren batera.

Zure ibilgailuak **Top Tether** bat duen egiaztatzeko, ibilgailuaren eskuliburua kontsultatu beharko duzu. Sarritan, ainguraketa-puntu hori **Top Tether**-en logotipoarekin dago adierazita.

Top Tether lokailuari esker, aurrez aurreko talka bat izanez gero, arindu egiten da **ISOFIX** duten aulkiek aurrerantz egiteko izaten duten errotazio-efektu arina.



AINGURAKETA-SISTEMAK


EUSTEKO HANKA



Eusteko hanka hirugarren euste-puntu bat gehitzeko aukera bat da, **Top Tether** sistema instalatu ezin denean. Horrek aulkiaren desplazamenduaren mugimendua zorrozki gutxitzen du, istripua izanez gero.

Babesgailu honek ainguraketa erdi-unibertsala du, hau da, erdi-unibertsala esaten da, ez dagoelako ibilgailu guztietarako homologatuta. Instalatu nahi baduzu, kontsultatu bateragarria zaien ibilgailuen zerrenda (markak eta modeloak).

Egiaztatu babesgailu hau ez dela jartzen azpiko konpartimentua duen gainazal baten gainean; izan ere, horrek eraginkortasuna murriztuko luke, eta, ondorioz, aulkitxoak segurtasuna galduko luke.



AINGURAKETA-SISTEMAK

LOWER TETHER

Aulki batzuei bizkarraletik ateratzen zaien tenkagailu bat da; martxaren kontrako noranzkoan irteten da, eta automobilaren zoruko punturen batean edo aurreko eserlekuko giden bidez finkatzen da.

Errotazioa saihesten du, bai eta, talka baten ondoren, aulkia altxatzea edo ibilgailuaren atzeko aldera atzeratzea ere.

Sistema hau duten aulkiek bi tenkagailu izaten dituzte normalean, alde bakoitzean bana.



HOMOLOGAZIOAK

HOMOLOGAZIO-ETIKETAK

Haurrak lotzeko sistema guztiek homologatuta egon behar dute. Gaur egun, bi homologazio-araudi daude:

ECE R44/04

ECE R129 (I-Size)

Homologazio-araudia edozein dela ere, produktuek honako hauen antzeko etiketa bat izan behar dute. Etiketa horietan, besteak beste, honako hauek identifikatu ahal izango dituzu: enpresa fabrikatzailea, araudia eta homologazio-zenbakia, HLS kopurua eta adingabearen pisu edo altuera egokia.

ECE R44/04



ECE R129(I-Size)



HOMOLOGAZIOAK

ECE R44/04

ECE R44/04 araudia 1982. urtean onartu zen, eta geroztik, lau aldiz berrikusi da hobekuntzak egiteko eta aurrerapen teknikoetara egokitzeko. Horixe adierazten dute ECE R44/04 arauaren azken bi digituek (2005eko ekainean sartu zen indarrean).

Europako araudi horri jarraikiz, haur-eserlekuen segurtasuna aztertzeke, honako proba hauek egin behar dira, besteak beste:

- Aurrez aurreko talka-proba bat 50 km/h-ko abiaduran, haurraren gorputzaren (burua, lepoa, bularra, etab.) gainean eragiten diren desplazamendua eta esfortzuak neurtzeko.
- Atzeranzko irismen-proba bat 30 km/h-ko abiaduran.
- Eserlekuko arnesaren itxigailuaren gaineko hainbat proba; proba horien bidez egiaztatuko da itxigailua istripu baten ondoren erraz ireki daitekeela, baina, aldi berean, haur batek baldintza normaletan irekitzeko ez dela oso erraza.
- Eserlekuaren diseinuaren azterketa bat, ertz zorrotzik edo babesik gabeko pieza zurrunik ez dagoela bermatzeko.
- Eserlekuko uhalaren edo arnesaren azterketa bat, altuera eta pisu desberdinetako haurren gorpuzkerara segurtasunez egokitu daitekeela egiaztatzeko.
- Baita beste hainbat eskakizun ere, hala nola materialek suarekiko duten portaera, zati metalikoek korrosioarekiko duten erresistentzia, hainbat osagairen toxikotasuna, etab.

ISOFIX sistema duten ibilgailu guztiek ECE R44/04 arauaren arabera homologatutako aulkitxoak instala ditzakete.

HOMOLOGAZIOAK

ECE R129 (I-SIZE)

I-Size Europako homologazio-araudia da, 2013ko uztailetik dago indarrean, eta aulkitxoak arautzen ditu, bai eta horiek instala daitezkeen ibilgailuak ere. Aulki horien eraginkortasuna handiagoa izango da, baldin eta I-Size ibilgailuetan instalatuta badaude.

Hala ere, aulki horiek **ISOFIX** ainguraketa duten eserlekuetan ere erabil daitezke, I-Size ibilgailuak ez izan arren ere.



Araudi horren arabera, adingabeak martxaren kontrako noranzkoan bidaiatu behar du, 15 hilabete/13 kg/105 cm izan arte. Araudi horren arabera fabrikatutako aulkietan zehatz-mehatz azaltzen da zein altuera-tarterako diseinatu diren.

Bestalde, I-Size ibilgailu batek irizpide hauek bete behar ditu:

- I-Size gisa definitutako gutxienez 2 eserleku izan behar ditu, **ISOFIX** ainguraketa-puntuekin eta **Top Tether** ainguraketa-puntu batekin.
- Ibilgailuaren zoruak aulkitxo baten **Eusteko hanka** ezartzeko diseinatura egon behar du.
- I-Size aulkitxo baterako nahikoa leku izan behar du, eta haurrak ibilgailuaren martxaren kontrako noranzkoan bidaiatu ahal izateko aukera eman behar du, haurra gutxienez 71 cm-ra iristen den arte.
- I-Size araua zehatz-mehatz deskribatu behar da informazio-eskuliburuan.

OHIKO GALDERAK

IBILGAILU PARTIKULARRAK

• AULKITXOA MARTXAREN NORANZKOAN ALA MARTXAREN KONTRAKO NORANZKOAN?

Adingabeak martxaren kontrako noranzkoan ahalik eta denbora gehienez eramatea gomendatzen da, betiere haurrak lotzeko sistemen eta ibilgailuaren enpresa fabrikatzaileek ezarritako mugak errespetatuz. Doitu ondo beti arnesak edo uhalak adingabearen gorputzera, lasaierarik gabe.

• HAURTXO BAT IZAN BERRI DUT, ETA 0+ TALDEKO AULKITXO BAT OPARITU DIDATE. NOLA ETA NON JARRI BEHAR DUT NIRE UMETXOA?

Zure umetxoak aulkitxoan bidaiatu beharko du ibilgailuaren atzeko eserlekuan. Aulkitxoa martxaren kontrako noranzkoan jarri beharko da. Egiaztatu, halaber, aulkitxoaren homologazio-etiketak bat egiten duela indarreko araudiarekin.

• ISTRIPU BAT IZAN BERRI DUT; EZ ZAIGU EZER ERE GERTATU, BAINA NIRE SEME/ALABAREN AULKIAK ASTINALDIA IZAN DU. ALDATU EGIN BEHAR AL DUT?

Istripu baten ondoren, hobe da beti haurrak lotzeko sistema ordezkatzeari. Zalantzarik izanez gero, jar zaitez enpresa fabrikatzailearekin edo erosi zenuen saltokiarekin harremanetan, aulkiaren eraginkortasuna bermatzeko berrikuspen bat egin dezan.

• AULKI BAT EROSI BERRI DUT NIRE SEME/ALABARENTZAT ETA ZALANTZA BATZUK DITUT. ZEIN DA POSIZIORIK SEGURUENA AUTOAN?

Atzeko eta erdiko eserlekuak dira seguruena haurrak lotzeko sistema bat instalatzeko, betiere hiru ainguraketa-puntuko uhala badute. Ibilgailuak eserleku-ilara bi baino gehiago baditu, aulkia erdiko ilaran jartzea komeni da, istripuen eragina murrizteko.

• AULKI BAT EROSI BERRI DUT NIRE SEME/ALABARENTZAT ETA ZALANTZA BATZUK DITUT. ZEIN DA POSIZIORIK SEGURUENA AUTOAN?

Atzeko eta erdiko eserlekuak dira seguruena haurrak lotzeko sistema bat instalatzeko, betiere hiru ainguraketa-puntuko uhala badute. Ibilgailuak eserleku-ilara bi baino gehiago baditu, aulkia erdiko ilaran jartzea komeni da, istripuen eragina murrizteko.

• MERKATUAN AULKI BAT AURKITU DUT OSO PREZIO ONEAN, BAINA EZ DUT HOMOLOGAZIO-ETIKETARIK AURKITZEN. ZER EGIN BEHAR DUT?

Aulkia homologatuta egon behar du, horrela, eskatutako segurtasun-arauak betetzen dituela bermatzen baita. Egiaztatu aulkian etiketa laranja dagoela jarrita, eta ECE R/44 kodea edo ECE R129 kodea duela; kode horiek esan nahi dute indarrean dauden araudien arabera segurtasun-baldintzak betetzen dituela.

OHIKO GALDERAK

IBILGAILU PARTIKULARRAK

• 2 ETA 11 URTE BITARTEKO HIRU ADINGABE DITUT. ZERTARA BEHARTZEN NAU HAURRAK LOTZEKO SISTEMEI BURUZKO ARAUDIAK?

135 cm edo gutxiago neurtzen duten adingabeak

Aurreko eserlekuak

Debekatuta

Salbuespenak:

- Ibilgailuak atzeko eserlekurik ez izatea.
- Atzeko eserleku guztiak okupatuta egotea lotzeko sistema homologatuak daramatzaten adingabeekin.
- Haurrak lotzeko sistema guztiak atzeko eserlekuetan instalatzea ezinezkoa izatea.

Kasu horietan, ibilgailuak aurreko airbaga badu, bizkarrez jarrita dauden haurrak lotzeko sistemak soilik erabili ahalko dira airbaga desaktibatuta badago.

Atzeko eserlekuak

Haurrak lotzeko sistema homologatuekin

135 cm edo gehiago neurtzen duten adingabeak

Aurreko eta atzeko eserlekuak Segurtasun-uhalarekin

Gomendioak

Hiru ainguraketa-puntuko segurtasun-uhalek adingabeak babestu ahal izateko, ibilgailuko eserlekuaren bizkarraldearen gainean zuzen eseri eta belauak eserlekuaren ertzeraino tolestu ahal izateko adinako altuera izan behar dute, irristatu gabe.

Aulkia adingabeak 150 cm-ko altuera izaten duen arte mantentzea komeni da, hori baita automobilaren segurtasun-uhalak bere zeregina behar bezala betetzeko gutxieneko altuera.

Uhalaren banda diagonalak klabikularen gainetik igaro behar da eta sorbaldaren gainean jarri, lepoa ukitu gabe eta bularraren gainean ondo itsatsita. Sabeleko banda ahalik eta beheren jarri behar da, aldaken gainetik eta izterren gainean jarrita, inoiz ez urdailaren gainean.

Banda diagonalak lepoa ukitzen badu edo kokotsaren azpitik igarotzen bada, hobe da aulki homologatu bat erabiltzen jarraitzea, seguruagoa baita.

Banda diagonalak eta sabeleko bandak elkarrekin jarduten dute, talka eginez gero edo bat-batean geratuz gero gorputzaren goiko eta beheko aldea elkarrekin eusteko. Banda diagonalak ez da inoiz ere besoaren azpian edo bizkarraren atzean jarri behar.

OHIKO GALDERAK

IBILGAILU PARTIKULARRAK

• HIRU SEME-ALABA DITUT, ETA HAURRAK LOTZEKO DAGOZKIEN SISTEMEKIN BIDAIAU BEHAR DUTE. NOLA JAR DITZAKET BEREN AULKIAK IBILGAILUAN?

Indarreko araudiak ez du uzten 135 cm-tik beherako altuera duten adingabeek aurreko eserlekuetan bidaiatzea; horiek atzeko eserlekuetan bidaiatu beharko dute, beren neurriaren eta pisuaren arabera lotzeko dagokien sistemarekin. Honako egoeraren bat gertatzen bada erabili ahalgo dute soilik aurreko eserlekua:

- Ibilgailuak atzeko eserlekurik ez badu.
- Atzeko eserleku guztiak dagoeneko okupatuta badaude lotzeko sistema homologatuak daramatzaten adingabeekin.
- Atzeko eserlekuetan ezin badira instalatu haurrak lotzeko sistema guztiak.

Kasu horietan, ibilgailuak aurreko airbaga badu, bizkarrez jarrita dauden haurrak lotzeko sistemak soilik erabili ahalgo dira airbaga desaktibatuta badago.

Zure ibilgailuaren atzeko eserlekuan hiru aulkixoak sartu ez eta soilik bi sartzen badira, eta betiere heldu batek dagokion segurtasun-uhalarekin lotzen badu, kasu horretan, hirugarren aulkitxoa aurreko eserlekuan jarri ahal izango duzu. Hori gertatzen denean, aurreko eserlekuan adinik handiena duenaren aulkitxoa jartzea gomendatzen da. Bestalde, gogoratu: zure ibilgailuak aurreko airbaga badu, aurreko eserlekuan bizkarrez jarritako aulkitxoak jarri ahal izateko, airbaga desaktibatu beharko da.

OHIKO GALDERAK

TAXIak eta GIDARIDUN IBILGAILUAK

• NIRE SEME/ALABAK 135 CM BAINO GUTXIAGO NEURTZEN DU. NOLA JOAN BEHAR DU TAXI EDO GIDARIDUN IBILGAILU BATEAN?

Joan-etorria **hiriko trafiko barruan** edo hiri handietako hiri-eremuetan egiten bada, eta taxiak edo gidaridun ibilgailuak zure semearen edo alabaren tamainara eta pisura egokitutako haurrak lotzeko sistema homologatua badu, soilik atzeko eserlekuan bidaiatu ahal izango du. Halako sistemarik eduki ezean, araudiak adingabeak ibilgailuan bidaiatzeko aukera ematen du, betiere taxiaren edo gidaridun ibilgailuaren atzeko eserlekuan jartzen bada.

Zure semearen edo alabaren segurtasunaren aldera, hiriko trafiko-eremuetatik egiten dituzun joan-etorrietan haurrak lotzeko sistema homologatuak dituzten taxiak edo gidaridun ibilgailuak erabiltzen saiatu. Zerbitzu horietako gehienek adingabearen pisuarekin edo altuerarekin bat datorren HLSa jartzen dute bezeroen eskura; beraz, taxi edo gidaridun ibilgailu baten premia izanez gero, aurretiaz deitu eskatzeko.

Joan-etorria **hiriarteko trafikoan** egiten bada, haurrak bere altuerara eta pisura egokitutako haurrak lotzeko sistema homologatu bat erabili beharko du.

Hiri-ingurunetik kanpo taxi edo gidaridun ibilgailu batean eta dagokion aulkirik gabe bidaiatuz gero, adingabearen ardurapean dagoen heldu arduradunak arau-haustea egingo luke eta isuna ordaindu beharko luke. Legeak erantzukizun horretatik salbu uzten du zerbitzu publiko bateko gidari profesionala. Hala ezartzen du martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak:

“4. Ibilgailuetako gidariek eta bidaiariek segurtasun-uhala, kaskoak eta gainerako babes- eta segurtasun-elementuak erabili behar dituzte, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan eta salbuespenekin, hala badagokio. Gidari profesionalak, hirugarrenei zerbitzu publikoa ematen dietenean, ez dira ibilgailuko bidaiariek arau hau bete ez izanaren erantzule izango.”

OHIKO GALDERAK

ESKOLA-GARRAIOA

• NIRE SEME/ALABAK 135 CM BAINO GUTXIAGO NEURTZEN DU. NOLA BIDAIATU BEHAR DU?

Zure seme/alabak hiru urte edo gehiago baditu, eta ibilgailuak haren altuera eta pisura egokitutako haurrak lotzeko sistemarik ez badu, segurtasun-uhalak erabili beharko dira, betiere haren altuerara eta pisura egokituta.

Eskola-garraioa egiteko baimendutako autobusak homologatutako lotzeko sistemak baditu, zure seme/alabak sistema horiek erabili beharko ditu, betiere bere altueraren eta pisuaren arabera badira. Gaur egun, autobusetan berariaz erabiltzeko lotze-sistema homologaturen bat aurkitu ahalko duzu merkatuan. Sistema hori zuzen eta segurtasunez instalatzen dela bermatzeko, fabrikatzailearen jarraibideei jarraitu.



• NIRE SEME/ALABAK GURE FAMILIA-IBILGAILUAN ERABILTZEN DUEN AULKITXO BEREAN BIDAIATU AL DEZAKE ESKOLA-AUTOBUSEAN?

Ibilgailuko aulkitxoak ez du autobus baterako balio. Homologazioa edozein dela ere, kontuan izan behar duzu ez dela diseinatu autobus bateko eserlekuetarako, eta ez zaiola horretarako segurtasun-probarik ere egin.

• NIRE SEME/ALABAK 135 CM BAINO GEHIIAGO NEURTZEN DU. NOLA BIDAIATU BEHAR DU?

Eskola-garraioa egiteko baimendutako autobusak segurtasun-uhalak edo lotzeko homologatutako beste sistema batzuk baditu, zure seme/alabak nahitaez erabili beharko ditu.

• ESKOLA-AUTOBUSEK SEGURTASUN-UHALAK EDUKI BEHAR AL DITUZTE?

2007ko urritik aurrera lehen aldiz matrikulatutako autobusek segurtasun-uhalak eraman behar dituzte.

HAURDUNALDIA ETA SEGURTASUN-UHALA

• HAURDUN NAGO ETA EZ DAKIT SEGURTASUN-UHALA LOTZERA BEHARTUTA NAGOEN.

Araudiak segurtasun-uhala erabiltzera behartzen ditu haurdun dauden emakumeak. Arrazoia argi eta garbi dago: uhala ez eramateagatik fetuak lesioa izateko eta fetua galtzeko arriskua handiagoa da istripua gertatuz gero umetoki barneko lesioa izateko arriskua baino.

Uhala ondo erabili behar da haurdunaldiaren edozein fasetan. Beheko bandaABELAREN azpian jarri behar da, eta goikoa, diagonalean, bularraren etaABELAREN gainean. Merkatuan badira uhalak jartzea errazten duten sistema batzuk.

• AIRBAGA ARRISKUTSUA AL DA HAURDUNALDIAN?

Ez, baldin eta gorputzaren eta airbagaren arteko gutxieneko distantzia 25 cm-koa bada. Nolanahi ere, airbaga segurtasun-uhalaren osagarri da, baina ez du ordezkatzeko. Izan ere, airbagak ez du bere helburua betetzen uhala behar bezala jarrita ez badago.

Era berean, bolanteak inklinazio doigarria badu, bularrerantz zuzentzea komeni da, sabelaldeari aurrea ematen egon ez dadin.



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO